

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIOA

2024ko uztaila

Lidergo partekatuen inguruko jardunaldia

Azaroaren 14an lidergo partekatuz hitz egiteko topaketa bat egingo dugu. Zehazki, lidergoari begira jarriko gara rol desberdinetatik eta haien arteko harreman eta elkarlanetik: lidergo politikoa, lidergo teknikoa eta lidergo herritarraz arituko gara.

Datozen hilabeteetan joango gara egitarauaren berri gehiago ematen baina, momentuz, gorde data: **2024ko azaroaren 14a!**

BERRIAK

Nola erraztu ekintza komunitarioa herri/hiri antolamendutik eta espazio eta ekipamendu publikoen diseinutik?



Aurtengo Udako Ikastaroen ediziorako lurraldea ardatz izatea proposatzen dugu, irailaren 10 eta 11rako antolatu dugun ikastaroan.

Lurraldea ikuspegi zabal batetik aztertu nahi dugu, bereziki, gizarte azpiegitura edo komunitarioaren zentzuan oinarrituta. Izan ere, azpiegitura sozial edo komunitario bat pertsonen arteko harreman etengabeak edo erreplikakorrek errazteko pentsatutako azpiegitura fisiko moduan ulertzen dugu. Eta honenbestez, liburutegiak, kultura eta

hezkuntza zentroak edota espazio publikoa bera, erabiltzaileen arteko harremana eta lotura sustatzeko intentzionalitatearekin planifikatu eta diseinatu daitezke.

Eman izena plazak agortu aurretik [HEMEN](#)

Bilgune Teknikoa uztailaren 5ean

Bilgune Teknikoaren urteko bigarren bilera egingo dugu eta bertan parte hartzera gonbidatuta daude herri handi, ertain eta txikietako arloko teknikariak eta herri txikietako ordezkari politikoak, Aldundiko teknikari eta Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendariarekin batera.

Bilguneak helburu bikoitza izango du. Batetik, lehenengo seihilekoan egindakoaren balorazioa egingo da eta bestetik, abendura bitarteko lantalde, mintegi eta trebakuntza-saioak planifikatuko dira.

Oraindik izena eman ez baduzu garaiz zaude; horretarako, idatzi partaidetzaespazioa@gipuzkoa.eus helbidera.



Tailerretatik mintegira

21 tailer egin dira 5 bloketan eta 25 udalek parte hartu dute tailerretan apirila bitarte partaidetza eta ekintza komunitarioaren inguruko tokian tokiko gogoetak egiten.

Hala, maiatzaren 30ean elkartu ziren tailerretan parte hartu duten udalerrietako teknikari nahiz politikariak bi helburu nagusirekin: bata, tailerretatik ikasitakoak eta ondorio partekatuak ateratzea eta bestea, hurrengo urratsak elkarrekin lantzea.

Saio emankorra eta mamitsua izan zen, lurralde ikuspegitik partaidetzaren egituratzea zein ekintza komunitarioa indartzeko ditugun erronka nagusiak identifikatzea ahalbidetu ziguna. Saioan zehar asko azpimarratu ziren hitzak izan ziren: lidergoa, bihotza, elkargunea, antolamendua, estrategia... gisakoak.

Saioko akta [HEMEN](#) irakurgai

Tailerren balorazioaren bideoa [HEMEN](#) ikusgai



Herritarren partaidetza sustatzeko dirulaguntzak

Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritzak aurten ere, herritarren partaidetza sustatzeko helburuarekin bi dirulaguntza lerro zabaldu ditu: bata, lurraldeko udalei zuzenduta; eta bestea, lurraldeko herritar erakundeei bideratua. Lehenengo deialdiak arrakasta handia izan du: 76 proiektu aurkeztu dira, 55 herri. Beraz, eskertzekoa da udalek beraien proiektuetan partaidetza txertatzeko apustua.

Datozen egunetan emango da ebazpenaren berri.

Ideiak 2024

Bidasoa ibaiaren bi aldeetako herritarren eta elkarten arteko harremanak sustatzeko IDEIAK partaidetzako aurrekontuaren 3. edizioaren aurrean gaude. Aurtengo berrikuntza nagusiak dira proiektuak Gipuzkoan bakarrik aurkeztu beharko direla eta programaren finantzaketa 150.000 eurokoa izango dela.

Bi lurraldeetako eragileen artean sareak sortzeko eta ahalduntzeko bidea egiten jarraitzea nahi dugu.

Proiektuen bozkaketa fasean gaude, 2024ko ekainak 19 - uztailak 9 bitarte - Fase honen helburua da herritarrek diruz lagunduko diren proiektuak aukeratzea.

Nori zuzenduta: Gipuzkoan bizi den 16 urtetik gorako pertsona orok eman dezake botoa.

Nola bozkatu: Bozketa web orrian bakarrik egingo da. Botoa emateko, webgunean erregistratu behar da, harremanetarako datuak adierazita (izen-deiturak...). Herritar bakoitzak 3 proiektu bozkatu behar ditu nahitaez.

Kontsulta ezazu proiektuen zerrenda eta eman botoa gogokoen dituzun 3 proiektuen alde [HEMEN](#)



TREBAKUNTZAK

Partaidetzazko aurrekontuak

Ekainaren 14an egin genuen eta 20 lagun inguruk parte hartu zuten, gehienek aurrez-aurre eta batzuk baita telematikoki ere. Zehazki, kalitatezko partaidetzazko aurrekontuen prozesu batek bildu behar dituen faseak eta fase bakoitzeko urrats nagusiak zeintzuk diren azaldu genituen lehendabizi, eta ondoren gogoetarako eta praktikak partekatzekeo tartea ireki genuen. Beti ere, jakitun izanik, gisa honetako prozesuak garatzeko modu bat eta bakarra ez dagoela eta tokian tokiko errealitatera egokitutako prozesuak behar dutela izan.

Trebakuntzaren laburpen bideoa [HEMEN](#)

